

1997ko EKAINAREN 11ko BILKURA NAGUSIA

Lizartzan, mila bederatziehun eta laurogeitamazazpiko ekainaren hamaiketan, gaueko bederatzia direnean, Alkatea: Jose Antonio Mintegi Arrate; Udalkideak: Ima Zubeldia Luloaga, Juan Manuel Iburguren Etxeberria, Marian Olano Zabala, Manuel Barriola Tolosa eta Jose Arzadun Egiluz; Ramon Bengoetxea Altuna Zinegotzia ez da agertu; Idazkaria: Ana Jesus Zabala Garmendia eta beste hainbat herritar, Biltzar Nagusian bildu dira, gai hauek erabili direlarik:

1.- AURREKO AKTAREN ONARPENA:

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

2.- MUSKIL

Muskil-eko arduraduna den MARIAN OLANO ZABALA zinegotziak, zera adierazi du:

MUSKIL elkartea osatzen dugun 12 Udalok: Asteasu maiatzaren 29an burutu den Batzar Berezian, Asteasu, Zizurkil, Aduna, Alkiza, Errezil, Bidegoian, Orendain, Altzo, Lizartza, Leaburu-Txarama eta Gaztelu, elkartea desegitea erabaki dute.

Horren arabera, proposatu du:

- 1.- Lizartzako Udal honek, Udal Batzarrean MUSKIL GIZA - KULTUR Elkartearen erabakia onartzea.

2.- Asteasu, Aduna, Lizartza eta Leaburu-Txaramako Udal ordezkariak eta Zuzendaritza Batzordeak, Kitapen Batzordea osatu eta honen erabakiak onartzea.

Muskil Giza - Kultur Elkartearen desegiteko erabakia, aho batez onartua izan da.

3.- KUTXARI BURUZ MOZIOA

Oraingoan berriro ere, Kutxak etekinen marka hautsi du, finantza-munduko tarteak hertsu diren arren. Iazkoan, Repsol firmako akzioen erosmentan 20.000 milioi pezeta inbertitzea erabaki zuen Kutxak eta, balioespen batzuen arabera, baliteke enpresa horretako likidezia-maila 200.000 milioi pezeta ingurukoa izatea; dirutza horrekin erraz jo daiteke Gipuzkoako familien bizi baldintzak hobetzeko hainbat proiektu praktikan jartzera. Kutxak aurkeztutako emaitzek frogatzen omen dutenaz arrunt bestela, herritar gehientsuek geroz eta zailtasun larriagoak topatzen dituzte hilaren bukaerara iristeko eta hortxe ikusten ari dira nola langabeziak eta lan-merkatuaren prekarizazioak geroz eta etorkizun latzagoa agertzen dieten.

Egoera honetan, geroz eta nekezago du gazteak gurasoengandik independente jartzea edota familiak etxebizitza aurkitzea: etxebizitza da, hain zuzen ere, gure herrialdean dugun arazorik latzenetako bat, langabezia eta prekaritatearekin batera. Gauzak honela, ausardia eta irudimenez aurrerapausuak ematea dugu ezinbestekoa eta, honetan, Kutxak egundoko erantzukizuna dauka gipuzkoar herritarren baitatik sorturiko erakundea baita: irabazi-asmotatik kanpo, hortaz, finantza-alorrean sor daitezkeen premiak betetzea eta Gipuzkoa eta Euskadiko garapen sozio-ekonomikoa bultzatzen duten proiektuak sustatzea ditu helburu. Kutxaren izaera sozialak, Obra Soziala izenekoaren iraupenean ezezik, jarduera betetzen duen banka-negoziaren egituran ere agertu behar du.

Arrazoi hauengatik eta Kutxak duen likidezia --Repsol firmako akizoen erosmentak frogatzen duenez-- kontuan izaki, Batzar Nagusira hurrengo proposamen aurkezten diogu: babes ofizialeko eta, are gutxiago, araubide libreko etxebizitza hartzea (horretarako nahiko diru-sarrerik ezean) ezinezkoa duten herritarrentzat alokairuan etxebizitza-parke bat antolatu eta mantentzen udalei laguntzea du helburua. Proposamen honi jaramon eginik izaera sozial nabarmeneko obra batean jarri ahal izango du Kutxak dauzkan baliabide ugarietako zati bat, premia larria nozitzen duten familien mesedetan.

Hona gure proposamena:

- 1.- Gipuzkoako udalentsat gutxienez 5.000 milioi pezetako kreditu-lerro berezi bat egokitzea, erakunde horiek udal-lurretan eraikuntzak egin edota eraikin zaharrak erosi eta egokitu ahal izan dezaten; honi esker, prezio apaletan alokairuzko udal etxebizitzaren parkea eduki lezakete Udalek, premia gorrian dauden herritarrek non bizi izan dezaten.
- 2.- Kreditu hauek oso epe luzera (50 urtera ere) emango lirateke, eta interes tasa, gehienez, momentu bakoitzean diruaren prezio ofiziala izango delarik, etxebizitza horien eraikuntzak eta mantenimenduak udal aurrekontuak hipoteka ez ditzaten, alde batetik, eta Kutxak horretara bideratutako dirua eskura dezan, bestetik.
- 3.- Udalek, bere aldetik, horrelako kredituak helburu horretara bideratuko dutela aginduta, etxebizitza horiek jabetzan nahiz alokairuan hartzeko araudia xedatuko dute, kasuan kasuko diru-sarreraren, senide kopuruaren eta besteren arabera.

Kontutan hartuz 1997ko apirilaren 12an egindako Batzar Orokorrean proposamen hau ez zela eztabaidatu, eta Gipuzkoako Udalak Kutxako Gobernu Batzordearen partaide direla, Udal Batzar honek honako hau onartu dezala eskatzen da:

- 1.- Goian aipatzen den proposamenarekin bat etortzea.
- 2.- Kutxako Gobernu Batzordean dauden Udal honetako ordezkariari, baldin badaude, Kutxako Batzar Orokor batean eztabaida bultzatu dezaten eta aipatutako proposamena defenda dezaten eskatzea.
- 3.- Akordio hau eta bere zehaztasunak Kutxa eta Gipuzkoako Foru Aldundira heleraraztea.

Kutxari buruzko proposamena eztabaidatu ondoren, aho batez onartua izan da.

4.- INDEPENDENTZI PLAKAK

Pasa den Maiatzaren 21ean, Lizartza zeharkatzen duen errepide orokorreko bi aldeetan ipinita zeudan plakak, Foru Aldundiako langileek kendu zituzten.

Ez da lehenengo aldia plaka hoiekin istiluak ditugula, izan ere, herri guztiak ospaturiko Independentziaren aldeko egunean jarri genituenetik berehala hasi ziren arazoak. Horrela, 1993ko Otsailean, Foru Aldundiatik baimenik gabe ipinitako publizitateko panelak zirela eta kentzeko agindua iritxi zen Udal honetara.

Agindu horri kasurik egin ez zitzaionez, urte bereko abuztuan plakak erre kara bota zituzten, ez dakigu nork; Diputaziokoek ukatu egin zuten beraiek izan zirenik.

Irailean berriro ipini genituen Herriko Festetarako eta urrian, Errepideetako Zuzendari Nagusiak kentzeko agindu berri bat eman zuen. Geroztik behin baino gehiagotan, ezezagunek pinturaz estali dituzte.

Garbi zegoen ordea eta garbi dago gaur egun ere, plaka hoiien mezua zela benetan traba egiten zuena eta ez panelek, hoiiek baino askoz zatarragoak ikusten bait dira errepide bazterretan, hori bai, Foru Aldundian agintean dauden buruzagi politikoen alderdikideak Alkatetza duten herrietan, nonbait zenbait plaka eta herriren aurretik begiak itxita pasatzen dira.

Guzti honen aurrean Lizartzako Udalak ondokoa eskatzen du:

- Foru Aldundiak bere ekintzak ez ditzala itxuraldatuz aurkeztu. Beraiek Independentziaren aurka badaude, Lizartzako herritarrok Independentziaren alde egoteko dugun eskubidea errespetatu dezatela. Orain arte ez dute errespetatu eta gainera bestelako aitzakiak jarri dituzte.
- Plaka hoiiek Herriarenak direnez, Herrira itzuli eta lehengo lekuan jar ditzatela.

Gaia eztabaidatu ondoren, Independentzi plakari buruzko eskaera, Lizartzako Herriaren Aldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin eta Herri Batasuneko 4 zinegotzien aldeko 4 botoekin, onartua izan da.

5.- LUR ESKUBIDEAREN ZESIO ESKRITURA SINATZEKO AHALMENA

1997ko Otsailaren 26ko Udal Batzarrean onartutako baldintz eta terminoetan, PLAZA-SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBA, R.L.ri eginiko adjudikazioaren arabera, Lizartzako Laguntzazko Arauetako 3. Arian kokatutako udal titularitatea duten, eta eraikitzeko gai diren partzelen gain, azalera eskubidea, eskritura publikoan osatu eta formalizatzeko, Udaleko Alkate-Lehendakaria den, JOSE ANTONIO MINTEGI ARRATERi ahalmenak ematea.

Lizartzako Herriaren Aldeko 2 zinegotzien abstentzioarekin eta Herri Batasuneko 4 zinegotzien aldeko 4 botoekin, onartua izan da.

6.- BAKE EPAILEAREN IZENDAPENA

Botere Judizialeko Lege Organikoko 101 artikulua xedatzen duenaren arabera, Udalbatzarrak Bake Epailea eta bere ordezkoa hautatu behar ditu, ondoren Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenak izendapenak egiteko.

Kontutan hartuaz, iragarkien bidez, jendaurrean egon dela, izena emateko epea zabalduaz eta epe horretan ez dela inor agertu.

Kontutan harturik, aurrez postu hoiak betetzen zituztenak, hau da: Hermenegildo Irazu eta Martin Mendia Altuna Jaunak, prest agertu direla, bertan jarraitzeko, proposatzen da:

Euskal Herriko Autonomi Elkarteko Zuzentza-Auzitegi Gorenari, Bake Epaile posturako, HERMENEGILDO IRAZU GOGORZA, eta Bake Epaile Ordezko posturako, MARTIN MENDIA ALTUNA Jaunak izendatzeko proposamena luzatzea.

Eztabaidatu ondoren, proposamena, aho batez onartu da.

7.- ALKATETZAREN DEKRETUAK

PLAZA SORO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZEN KOOPERATIBARI,
3. Arean 20 bizitza, garaje eta trastelekuak egiteko baimena eman zaio.

LIZARTZAKO ROCK TALDEARI, Maiatzaren 24ean, Lizartzako Frontoian, ospatu nahi duen, ROCK kontzerturako baimena eman zaio.

8.- Alkateak hitza harturik, zera dio:

Atzo arratsaldean jakin zuela, Jose Maria Arozena Jaunak, Lezine Baserriaren inguruan egiten ari zen lanetaz, eta bertaratu zenean, konturatu zela, kontratista bezala, Jose Arzadun Egiluz Zinegotzia zela lan hoiek egiten ari zena. Obra hoiek, inolako baimenik eskatu gabe egiten ari direla, eta bera zinegotzia den momentutik, gai hori kontrolatu behar zuela esaten dio.

Jose Arzadun Zinegotziak esaten dio, bera kontratista dela eta ez duela zertan partikularrak baimenik duen edo ez jakin beharrik, hori partikularraren lana dela. Berari, Jose Maria Arozena jaunak enkargatu diola obra hori egitea eta badakiela tartean, Tolosako Udala ere dagoela.

Alkateak dio, horrenbeste kamioi gora eta behera ibiltzeak, pistari egiten dion kaltea izugarria dela eta horretarako, hau da, pistaren erabilerarako, fiantza jarri beharra dagoela.

Manuel Barriola Zinegotziak galdetzen du, obrak egiteko ere fiantza jarri beharra al dagoen, ez al den, basoak ateratzeko bakarrik eskatzen. Ea, herrian egin diren beste obratan fidantzarik jarri al den.

Alkateak erantzuten dio, erabileragaitik pistak kaltetuak izan daitezkeen guztietan kobratu behar dela fidantza.

Alkateak, bakarrik, sortu zen arazoaren berri ematea dela dio.

9.- EUSKADIKO AUTONOMI HERKIDEGOKO TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE-PLANAREN AURRERAKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Alkateak, zera dio:

Gaurko Udal Batzarrerako deia egin ondoren, Euskadiko Autonomi Herkidegoko Trenbide-Sarearen Lurralde-Planaren aurrerakinari egindako

Alegazioak iritsi direla, eta gaia garrantzizkoa denez, gaur eztabaidatzea proposatu du.

Proposamena aho batez onartu da.

9.- EUSKADIKO AUTONOMI HERKIDEGOKO TRENBIDE-SAREAREN LURRALDE-PLANAREN AURRERAKINARI EGINDAKO ALEGAZIOAK

Dokumentua irakurrita, etortzen zaigun lehendabiziko ideia hauxe da: horren helburu behinena, Abiadura Handiaren "funtsezko katebegia", "euskal Y" deitutako hori, Euskadiko Autonomi Herkidegoan ezartzea dela, gaurrengungo bailabideak hein batez errentagarri bihurtu eta osatzeko asmoz, maila apalagoko beste ekimen batzuk ere martxan jarriz.

Ikuspuntu honetatik, berri handiegirik ez. Honela bada, dokumentuak informazio hau eman digu: 1994ko martxoaren 4an Madrilgo Ministroen Kontseiluak onetsitako Azpiegituren Plan Zuzendaria gauzatu, Trenbide-Azpiegituren 1995-2010 Plana idatzi zen; berari dagokion inbertsio-bolumena Aurrerakin honetan jasotzen da, informazio gisa. Behar bezain astiro aztertzen badugu, ondorio nabarmen batera iritsiko gara; Euskadiko Autonomi Herkidegoan hasi, igaro edo amaitzen diren trenbideei dagozkien inbertsio guztiak, 15 urte horretan, 154.705 milioi pezetara iristen diren bitartean, "Euskal Y" izenekoan egin beharreko inbertsioa 420.000 milioi pezetakoa da. Datu ekonomiko horietara erreparatu, hasierako ideia sendotu egiten da eta, honenbestez, beharrezko egiten zaigu Trenbide-Planean "Euskal Y" edo, bestela adierazteko, gure lurraldean Abiadura Handiko proiektua sartu izana baloratzea.

"Euskal Y" Madril-Gasteiz-Dax jarduketaren tarteetako bat da eta jarduketa hori, berriz, Europan abiadura handiko lehorreko komunikazio-katearen begi bat. Gauzak honela egiaztatzeak, abiadura handiko taxueraren

proiektua Trenbide-Planean sartzea eta proiektua bera ere auzitan jartzera garamatza, hurrengo arrazoiengatik:

LEHENA.-"Euskal Y" izeneko ez da Euskadiko Autonomi Herkidegoko gizaki eta merkagaien garraioa hobetzeko proiektua. Bestela esateko, ez da hiritar gehientsuenen -beharbada, hiritar guztien- premiak astetzeko modukoa, hau da, ia salbuespenik gabe Herkidego honetan bizi diren bi milioi lagunek egunero erabiltzen duten barne-komunikabideak hobetzeko denik ez dirudi.

Ez du balio distantzia luze, ez laburretarako. Euskal Herria ahalik eta azkarren zeharkatzeko balioko du, Madrildik Parisera lehenbailehen iristeko, adibidez. Hemendik ikusita, egiazkoa omen da egin zaion kritika hau: ez du elkarlotzen, ez du antolatzen euskal lurraldea; alderantziz, beraz baliatzen da gelditu gabe Euskal Herria zeharkatzeko.

Ezaugarri hauek dituela, oso herritar gutxik baliatuko luke garraio hori. Galdera halabeharrez datorkigu: bai inbertsio ekonomikoaren ikuspuntutik, bai ingurunean izango duen eraginagatik, zein ote da eragiketa horren emaitza soziala?

Trenbide horren bereizgarriak ikusirik, Euskadiko Autonomi Herkidegoko herritarrei nolako zerbitzua eskain liezaiekeen xehetasunez aztertzen duen dokumentuaren premia gorria ikusten dugu:

- Lurraldean sekulako eragina izango duen taxuera, zeharkatzen dituen aldeak bitan banatzen dituen (biak elkartezin bihurtuz), gaurregun elkarren ondoan dauden guneak urrutiratuz.

- Geltokia da salbuespenezkoa: abiadura eta denbora-aurrezkoa kontu behinenak dira.
- Zeharkatzen duen lurraldea, iristezin bihurtzen da.
- Helmuga berezi-bereziak, tartekorik gabeak.

BIGARRENA.- Autonomi Herkidegoak oraintxe nozitzen duen egoera ekonomikoak -hamaika herritar langabetu, suspertzeko itxaropen urriak- honelako proiektu batean diru publikorik (zeinahi iturritatik heldu dela ere) inbertitzeko asmoak kendu egiten ditu, Europako elite ekonomikoarentzako proiektua da hau, aztertu berri dugun bezala; hortaz, Euskal Herriko gizarteak krisialdia larrutik ordaindu behar izan duelarik, nekez jasan lezake horrelako egitasmorik diru publikoaz finantzatzea, diru horixe baita herritar guztien patrikatik, zergen bidez, irteten dena. Nahiaz kontrako finantza-zama litzateke hori eta, gainera, gizartearen egiazko interesak beteko lituzketen proiektuak egin ahal izateko unean maila apalagoko Administrazioek agertu beharko luketen biltze-gaitasuna kaltetuko luke.

Herritarrak, oro har, ez du proiektu horren beharrik. Abiadura handian inbertitzen hasi aurretik, badira han-hemenka hamaika lehentasun.

HIRUGARRENA.- Abiadura handiko proiektuek era guztietako lurraldeetan sortarazten duen inguruneke eragina ez da onargarri gurean. Ezaugarri horietako proiektua jasotzeko ez dira gai inondik ere gure orografia latz eta haran estuak. Lurraldearen Antolamendurako Norabideen dokumentuan egindako azterketan sartutako kontzeptua da "jasotzeko gaitasuna" eta Norabide horiek onetsi direnetik indarrean sartu da

lurraldearen antolamendu-politikan. Beraz, proiektu jakin bat ezartzeko, lur edo lurralde baten gaitasuna neurtzeko unean ere aplikatu beharrekoa da.

Aurrerakinako 7. atalean jasotzen diren parametro geometrikoak -bidearen zabalera, sekzioa, distantziak eta beste datu tekniko batzuk- astiro aztertuta, ondorio honetara iritsio gara: proiektu hau egin eta mantentzeko baldintza zorrotz-zorrotzak bete behar dira. Ez da guk ohikoa dugun trenbidea, izan.

Taxueraen ezaugarri teknikoek (bihurguneak, desmailak, etab.) lurraldearen egiazko manipulazioa egitea agintzen dute, hurrengoak agerpen izaki: mendi-etenak, gaurkoak baino askozaz ere zabalagoak liratekeen tunelak, berarizko erabilerarako bidaukoak (bestelako erabilerei galarazita, beraz) eta, oro har, lerro osoa hersten duen erabateko itxitura, Aurrerakinean agertzen den bezala. Hauezaz gain, proposatu den taxuerak berak -denbora aurrezteari erantzun behar dionez-, proposaturiko guneak ahalik eta lerro aurrezteari erantzun behar dionez-, proposaturiko guneak ahalik eta lerro zuzenean lotzea du helburu eta, ondorioz, azpiegitura honen premiarik ez duten eta -bere osotasuna, fauna, paisaia eta ingurugiroa, arrisku larrian jarri gabe- ezin jaso dezaketen lurralde honetako zona batzuen babespena gutxiesten du.

LAUGARRENA.- Lehen aipaturiko ezaugarri teknikoek aginduta, proiektuak gehienbat taxuera berrian hartu behar du euskarri. Honek bi ondorio aurkezten dizkigu:

- Alde batetik, lerro berri bat egiteak sortarazten duen diru-xahuketa ikaragarria; batez ere, egunero milaka herritarrek

darabiltzaten oraingo lerroetako gune asko eta askoren mantenuan inbertitzea premiazkoa den honetan.

- Ingurugiroko eragina bestelakoa da baina lehenagotik eragindakoei erantsiko zaie, eginda dagoen taxuera apenas baliatzen baitu. Honela bada, bistakoa da euskal herritarrok proiektu horretarik jasoko dugun emaitza nagusia lurraldearen txikizioa izango dela.

BOSTGARRENA.- Proiektuak biztanleriarengan eragingo dituen bestelakoak aloratzeko biderik ez du ematen Aurrerakinak, hala nola geltokia duten udalerrietakoak. Nolanahi ere, orainarte jasotakoei erantsi beharreko eragin-faktoreak izango dira horiek ere.

Horiek horrela, beharrezkoa da hurrengo ondorioztatzea: aurkeztu den Aurrerakin hau atzera bota beharko litzateke, trenbidezko abiadura handiak sortarazten dituen alderdi guztiak bai botere publikoek, bai herritarrek ongi ezagutu bitartean, era honetan, gure lurraldeko komunikazio-sarean egin beharreko lehentasunezko inbertsioak ongi baloratu ahal izan dezaten.

Aurrerakinean jasotzen diren gainontzeko jarduketak puntualak dira batez ere, egungo eskaintza gaitzen duten ohiturei erantzuna emateari buruzkoak, alegia. Hau da, premien atzetik goaz: beharrezkoa izan da lerro batzuen saturazioa egiaztatzea, horien erabilera-ahalmena eta gaitasuna atzemateko. Eskaintza jaso eta eskakizunaren mailan jartzeko bitartekoak jarri nahi izan dira Aurrerakinean. Horretarako, ordea, ez zen premiazkoa izan honetako planik. Dokumentu horrek eskakizunari aurrea hartzeko, norbaide berriak emateko balio beharko luke, ahalmenez gai diren lerroetako hutsuneak zuzendu eta zerbitzu urria dagoen tokietan inbertsioak egitearen bitartez; horixe

litzateke funtsezko lanabesa trenbidea alternatibazko garraiobide bihurtzen has dadin, automobilaren erabilera gutxieteko balio izan dezan, bera baino azkarrago, merkeago, erosoago izatearren eta kutsadura gutxiago sortzeagatik. Helburu hori erdietsi nahi ezean, Planak ez du ezertarako balio.

Euskadiko Autonomi Herkidegoko Trenbide-Sarearen Lurralde-Planaren Aurrerakinari alegazioak aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartuak izan dira.

Eta hitzegiteko beste gairik ez dagoenez, Alkateak, Batzarra amaitutzat eman du, gaueko hamarrak direnean.